



BASAURI
Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

ALKATETZA / ALCALDIA

IRAGARKIA. BIDE PUBLIKOAN EKITALDIAK EGITEKO LIZENTZIAK IZAPIDETZEKO JARRAIBIDEAK.

Alkatetzak 2614/2021 Dekretua eman du 2021eko uztailaren 14an, eta, bertan, zera xedatzen du:

“Jakina denez, COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdia nazioarteko pandemia-egoerara igo zuen Osasunaren Munduko Erakundeak, 2020ko martxoaren 11n. Egoera horrek indarrean jarraitzen du.

Espainiako estatuak krisiari aurre egiteko ezohiko araudia eman zuen: martxoaren 13ko 463/2020 Errege Dekretuak lehen alarma-egoera ezarri zuen, eta, gero, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma egoera ezarri zuen (gaur egun, ez dago indarrean). Euskal Autonomia Erkidegoan, 36/2020 Dekretua eman zuen lehendakariak, urriaren 26an; eta Osasun sailburuak ere zenbait agindu plazaratu zituen, prebentzio-neurriak ezartzeko.

Arau-esparru horretatik abiatuta, Alkatetzak jarraibide batzuk onetsi zituen 2020/10/05ean, Basauriko elkarteetan jardueretarako. Jarraibide horiek udal lokalei zegozkien batez ere, eta indarrean daude oraindik.

ANUNCIO. INSTRUCCIÓN PARA LA TRAMITACIÓN DE LICENCIAS PARA LA REALIZACIÓN DE EVENTOS EN LA VÍA PÚBLICA

Con fecha 14 de julio de 2021, esta Alcaldía ha dictado el decreto número 2614/2021 que dispone lo siguiente:

“Como es conocido, la Organización Mundial de la Salud elevó el día 11 de marzo de 2020 la situación de emergencia de salud pública ocasionada por la COVID – 19 a pandemia internacional, situación que se mantiene a fecha de hoy.

Para hacer frente a la crisis sanitaria en el Estado español, se promulgó normativa excepcional; así, el R.D. 463/2020, de 14 de marzo, que declaró el primer estado de alarma por esta causa y posteriormente, el R.D. 926/2020, de 25 de octubre, por el que se declara el estado de alarma para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, el cual actualmente no se encuentra en vigor. En el ámbito de nuestra Comunidad Autónoma de Euskadi, se dictó el Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del Lehendakari, así como diversas órdenes de la Consejería de Salud estableciendo medidas preventivas.

Con dicho marco normativo esta Alcaldía aprobó en fecha 05.10.2020 unas instrucciones para las actividades de las asociaciones de Basauri, aplicable fundamentalmente a los locales municipales; la cual permanece en vigor.



BASAURI
Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

Alabaina, pandemiak jarraitzen duen arren, 2021eko maiatzaren 9ko 00:00etan, alarma egoera bertan behera geratu zen. Hori dela eta, sinatzen dudan honen ustez, prebentzio-neurriak sendotu egin behar dira, osasun-arduradunek pandemia kontrolpean dagoela adierazi, eta herritarrentzako arriskua txikia edo oso txikia dela esan arte.

Gainera, indarreko arau-esparruak zuhertasun-neurriak hartzeko betebeharra ezartzen du, oraindik ere. Horren harira, Estatuan, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteei buruzko 2/2021 Legea eman zuten, martxoaren 29an (indarrean dago martxoaren 31tik). Testu horren bidez, mantendu egin da gaixotasuna hedatzeko arriskuak sortzea ekiditeko beharrezko neurriak hartzeko obligazioa; indarrean jarraitzen dute, era berean, Legean araututako edozein jardueraren titularrek duten kautela- eta babes-betebeharra (4. artikulua), eta maskara erabiltzeak derrigorrezkoa izaten jarraitzen du, lehengo baldintza beretan (6. artikulua). Era berean, Lege horrek aurreikusi du administrazio eskudunek bermatu beharko dutela aurreko artikuluetan aipatutako sektoreez bestekoren batean diharduten zentro, toki, establezimendu, lokal edo erakundeen *titularrek edo jardueren arduradun edo antolatzaileek*, izaera orokorrek, administrazio eskudun horiek ezarritako *edukiera-, desinfekzio-, prebentzio- eta egokitze- arauak* betetzen dituztela, baldin eta COVID-19aren kutsatze

Sin embargo, como es conocido, a las 00:00 h. del pasado domingo, 09 de mayo de 2021, expiró la vigencia del estado de alarma si bien la pandemia continúa, lo cual conlleva, a juicio del suscrito, que deban extremarse las medidas de precaución hasta que las autoridades sanitarias no den por controlada la pandemia en un nivel bajo o muy bajo de peligro para la población en general.

A su vez, el marco jurídico actual sigue siendo exigente con las medidas de precaución. Así, a nivel estatal se ha promulgado la Ley 2/2021, de 29 de marzo, de medidas urgentes de prevención, contención y coordinación para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, en vigor desde el 31 de marzo, en virtud de la cual se mantiene la obligación genérica de adoptar las medidas necesarias para evitar la generación de riesgos de propagación de la enfermedad; deber de cautela y protección igualmente exigible a los titulares de cualquier actividad regulada en la Ley (art. 4) manteniéndose el uso obligatorio de mascarillas en los mismos términos que los anteriormente señalados (art. 6) y, concretamente se prevé con carácter genérico que las administraciones competentes deberán asegurar el cumplimiento por los titulares de cualquier otro centro, lugar, establecimiento, local o entidad que desarrolle su actividad en un sector distinto de los mencionados en los artículos anteriores, *o por los responsables u organizadores de la misma*, cuando pueda apreciarse riesgo de transmisión comunitaria de COVID-19 con arreglo a lo establecido en el artículo 5, de las normas de *aforo, desinfección, prevención y acondicionamiento* que aquellas establezcan. En todo caso, se deberá asegurar que se adoptan las medidas necesarias para



BASAURI
Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

komunitariorako arriskua badago (5. artikuluan ezarritakoaren arabera). Edozelan ere, bermatu beharko da pertsonen arteko 1,5 m-ko gutxieneko segurtasun-tartea zaintzeko beharrezko neurriak hartzen direla, eta jende-pilaketak ekiditeko kontrola badagoela. Segurtasun-tarte hori ezin bada bermatu, kutsatze-arriskua prebenitzeko beharrezko higie-neurriak hartuko dira.

Autonomia Erkidegoan, indarrean dago lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa, zeinak berretsi egin baitzuen herritarrek, oro har, eta edozein jardueraren titular diren pertsona fisiko eta juridikoek, bereziki, dagozkion neurriak hartu behar dituztela, COVID-19 gaixotasuna hedatzearen arriskuak ekiditeko (1.1 artikulua). Dekretuak beste neurri batzuk ere ezarri zituen. Hala nola, aurreikusitako tokietan publikoetan pertsonen arteko 1,5 m-ko tartea zaindu, eta maskara derrigorrez erabili behar dela (1.3 artikulua). Eta jaso zuen aire zabaleko jarduera eta ikuskizunak baimenduta daudela, honako baldintza hauek betetzen badira: baimendutako edukieraren % 60a egotea, gehienez (toki itxietan, 600 laguneko muga; eta aire zabalean, 800), pertsonen arteko segurtasun-tartea zaintzeko neurriak hartzea (edo, bestela, babes fisikoko beharrezko neurriak ezartzea), maskara jantzita eduki beharra —pertsonen arteko 1,5 m-ko segurtasun-tartea egon arren (bizikidetzako unitateen kasuan, salbuespenez, elkarren ondoan dauden

garantizar una *distancia interpersonal mínima de, al menos, 1,5 metros*, así como el debido control para evitar las aglomeraciones. Cuando no sea posible mantener dicha distancia de seguridad, se observarán las medidas de higiene adecuadas para prevenir los riesgos de contagio.

En el ámbito autonómico se encuentra en vigor el Decreto 23/2021, de 7 de mayo, del Lehendakari, sobre medidas de prevención para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, recientemente modificado por el Decreto 30/2021, de 18 de junio. Así, se reitera la obligación que asiste a toda la ciudadanía y a las personas (físicas y jurídicas) titulares de cualquier actividad de adoptar las medidas necesarias para evitar la generación de riesgos de propagación de la enfermedad COVID-19 (art. 1.1), añadiendo diversas medidas como el mantenimiento de la distancia interpersonal de 1,5 metros en los lugares públicos, manteniendo el uso obligatorio de mascarillas (1.3); permitiéndose las actividades y espectáculos culturales al aire libre con un aforo máximo permitido del 60 por ciento de su capacidad autorizada, hasta un máximo de 600 personas en interiores y 800 personas en exteriores, debiendo establecerse las medidas necesarias para mantener la distancia de seguridad interpersonal o, en su defecto, la utilización de medidas alternativas de protección física, manteniéndose la obligatoriedad del uso de mascarilla aunque se mantenga la distancia de seguridad interpersonal de 1,5 metros (salvo en el caso de unidades de convivencia, que podrán sentarse en localidades contiguas); debiendo el público permanecer



BASAURI
Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

tokietan eseri ahalko dute)—, eta ikus-entzuleak aurretiaz esleitutako eserlekuetan esertzea(2.6 artikulua).

Bestalde, eremu publikoaren erabilera arautzen duen indarreko Udal Ordenantzaren arabera, bide publikoaren okupazio eta aprobetxamenduek erabilera komun bereziaren kategoria izango dute (3.1 artikulua), eta jabari publikoaren erabilera molde bereziki trinkoa ekarriko dute, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Toki Erakundeen Ondasunen Araudiaren 75.1 b) artikuluan xedatutakoarekin bat. Gainerakoan, berriz, lizentzia beharko dute (77.1 artikulua).

Lizentziak ematerakoan, Udalak lurraren jabe gisa jardungo du, bere eskumenak neurritz erabilita. Ordenantzak ere hala aurreikusten du 3. artikuluan, non xedatzen baita lizentziak emango direla Ordenantzan aurreikusitakoarekin bat, eta joko dela lizentzia horiek prekarioan emanda daudela (hau da, Administrazioan aldarrikatu ahal den okupazio-titulu juridikorik gabe) eta errebokatu ahalko direla, interes publikoko arrazoiak tarteko, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Era berean, aurreikusten da partikularrek ez daukatela baimena eskuratzeko berezko eskubiderik: baimen hori diskrezionaltasunez emango zaie. Hori bai: ebazpenak (baimena emateko zein ezesteko izan) behar bezala arrazoitua egon beharko du —hori ohikoa da administrazio-prozeduraren legerian, arrazoitzea behar duten horrelako

sentado y se requerirá asiento preasignado (art. 2.6).

De conformidad con la vigente Ordenanza Municipal reguladora del Espacio Público, las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría de uso común especial (art. 3.1). Constituye una forma especialmente intensa del uso del dominio público coherente con lo dispuesto en el art. 75.1, letra b) del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por R.D. 1372/1986, de 13 de junio, y por lo demás, está sujeto a licencia (art. 77.1).

En la concesión de las licencias, el Ayuntamiento actúa, como propietario del suelo, con razonable discrecionalidad y así se prevé en el art. 3 de la Ordenanza, en cuanto prevé que se concederán de acuerdo con lo previsto en la misma, entendiéndose, además, otorgadas en precario (es decir, sin que exista título jurídico alguno a la ocupación que sea exigible ante la Administración) y son revocables por razones de interés público sin derecho a indemnización. Se añade que el particular no ostenta derecho alguno a la concesión de la autorización, por lo que su otorgamiento es discrecional sin perjuicio de la necesaria justificación de la resolución que se adopte, como por otra parte es un lugar común en la legislación de procedimiento administrativo cuando se ejercen este tipo de potestades, que requieren de motivación (art. 35.1, letra a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas). Ello justifica que



eskumenak egikaritzen direnean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.1 a) artikulua)—. Horren harira, Alkatetzarena da horrelako lizentziak emateko eskumena (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 q) artikulua), eta, hala, hari dagokio ere bide publikoan ekitaldiak egiteko horrelako lizentziak izapidetzeko arau komunak ezartzea —bermatzeko osasun-xedapenak beteko direla, alarma-egoera amaitu arte—.

Hori guztia horrela, Udal Lege Aholkularitzaren eta 2021.06.23ko bileran Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzun eta gero, honako hauek onestea erabaki dut:

JARRAIBIDEAK:

LEHENENGOA.- XEDEA.

-Jarraibide hauek aplikatuko zaizkio bide publikoan egiten den edozein ekitaldiri. Hain zuzen ere, Eremu publikoaren erabilera arautzen duen Ordenantzaren 13. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoei —eskatzen duen kolektiboa, erakundea, elkartea edo pertsona fisiko edo juridikoa edozein izanda ere—.

- Jarraibide hauek ez zaizkie aplikatuko jai-ekitaldiei: ez auzoko jaietakoei, ez herriko zaindarien jaietakoei (San Migelekoei ere ez). Horiek berezko protokoloak izango dituzte.

esta Alcaldía, que tiene atribuida la competencia de otorgamiento de este tipo de licencias (art. 21.1.q) de la Ley 7/1985, de 2 de abril. reguladora de las bases de Régimen Local) establezca unas normas comunes para la tramitación de este tipo de licencias para la realización de eventos en la vía pública que permia cumplir con las disposiciones sanitarias hasta la finalización de la alarma sanitaria.

En su virtud, oído el parecer de la asesoría jurídica municipal y la Junta de Portavoces en su reunión de fecha 23.06.2021 he decido aprobar la siguiente:

INSTRUCCIÓN:

PRIMERA.- OBJETO.

- La presente instrucción será de aplicación a cualesquiera eventos en la vía pública, regulados en los artículos 13 y siguientes de la Ordenanza reguladora de Espacio Público, con independencia del colectivo, entidad, asociación o persona física o jurídica que lo interese.
- Esta instrucción no se aplicará a los eventos festivos relativos a las Fiestas Patronales o copatronales (Barrio de San Miguel) de Basauri, que se regirán por sus propios protocolos.



**BIGARRENA.- EREMU PUBLIKOA
ERABILTZEKO BALDINTZA
OROKORRAK.**

Ekitaldi guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte (SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzko lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretuak xedatutakoarekin bat):

- 1. Maskara nahitaez erabili beharko da, osasun-xedapenek ezarri bezalaxe.**
- 2. Toki publikoetan, pertsonen arteko 1,5 metroko tartea zainduko da.**
- 3. Gehieneko edukiera izango da Udalak baimendutakoaren % 60. Toki itxietan, 600 pertsona batu ahalko dira, gehienez; eta, aire zabalean, 800. Xede horietarako, eskatutako eremu bakoitzerako gehieneko edukiera ezarriko du Udalak, Zerbitzu Teknikoei kontsulta egin eta gero.**
- 4. Erakunde eskatzaileak pertsonen arteko segurtasun-tartea bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu; edo, bestela, babes fisikoko neurrietara jo beharko du —bizikidetzako unitateen kasuan, elkarren ondoko tokietan eseri ahalko dute; eta ikus-entzuleek, dena dela, aurretiaz finkatutako eserlekuetan jarrita egon beharko dute—.**

**SEGUNDA.- CONDICIONES GENERALES
DE USO DEL ESPACIO PÚBLICO.**

Conforme a lo dispuesto en el Decreto 23/2021, de 7 de mayo, del Lehendakari, sobre medidas de prevención para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, modificado por el Decreto 30/2021, de 18 de junio, cualquier evento está sujeto a las siguientes obligaciones:

1. Será obligatorio el uso de mascarilla, conforme a las disposiciones sanitarias.
2. Se mantendrá una distancia interpersonal de 1,5 metros en los lugares públicos.
3. El aforo máximo permitido será del 60 por ciento de la capacidad autorizada por el Ayuntamiento, hasta un máximo de 600 personas en interiores y 800 en exteriores. A estos efectos, el Ayuntamiento, consultados los servicios técnicos municipales, determinará el aforo máximo de cada espacio solicitado.
4. La entidad solicitante deberá establecer las medidas necesarias para mantener la distancia de seguridad interpersonal o, en su defecto, la utilización de medidas alternativas de protección física, salvo en el caso de unidades de convivencia, que podrán sentarse en localidades contiguas; debiendo el público permanecer sentado y se requerirá asiento preasignado.



5. **Gel hidroalkoholiko biruzidak jarriko dira sarrera eta irteeran, eta sustatzaileek zainduko dute bertaratuek erabili egiten dituztela.**
6. **Ekitaldi bakoitzaren aurretik eta gero, erabili beharreko eremua desinfektatu eta garbituko da.**
7. **Garbitu ostean, erabilitako materialak eta babes-ekipoak modu seguruan bildu eta botako dira, eta, gero, langileek eskuak garbituko dituzte.**
8. **Beharrezko babes-neurriei buruzko seinaleak jarriko dira (zehazki, maskara erabiltzeari eta segurtasun-tartea mantentzeari buruzko derrigortasuna agertzen dutenak), eta sartzeko eta irteteko bideak seinaleztatuko dira, zaindu beharreko segurtasun-tartea ere adierazita. Merkatu txiki, erakusketa eta antzekoen kasuan, sartzeko eta irteteko ibilbideak bereizi beharko dira, sartzen eta irteten direnek ez dezaten bat egin toki berean.**
9. **Udalak jarduera ikuskatu ahalko du edozein unetan, eta eten ere egin ahalko du, ikusten badu ezarritako neurriak edo indarreko legeriak jasotakoak ez direla betetzen.**
5. A la entrada y salida se colocarán dispensadores o gel hidroalcohólico o desinfectantes con actividad virucida, que serán utilizados a la entrada y salida del evento, encargándose los promotores de vigilar su utilización.
6. Se realizará una desinfección y limpieza general del espacio a utilizar antes de cada evento y después de su utilización.
7. Para la gestión de los residuos tras cada limpieza, los materiales empleados y los equipos de protección utilizados se desecharán de forma segura, procediéndose posteriormente al lavado de manos
8. Se señalará debidamente el lugar con las medidas de protección necesarias; en especial, el uso obligatorio de mascarillas y distancia de seguridad, así como los itinerarios de acceso y salida, con la distancia de seguridad en los mismos. En el supuesto de mercadillos, exposiciones o similares, deberá señalizarse itinerarios separados para la entrada y salida de personas, de forma que no confluyan en el mismo espacio.
9. El Ayuntamiento podrá inspeccionar en cualquier momento la actividad y se reserva el derecho a suspenderla si observa que no se están cumpliendo las medidas de seguridad aquí establecidas o cualesquiera otras que vengan establecidas en la legislación vigente.



10. **COVIDaren sintomak dituzten pertsonak: COVIDari lotutako sintomak dituztenak (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zaitasunak eta abar) ezingo dira sartu ekitaldira. Dagoeneko barruan badaude, alde egiteko eta etxera edo medikuarengana joateko eskatuko zaie.**
 11. **Ekitaldian zehar ezingo da elikagairik banatu. Salbuespenez, tenperatura altua bada, ur botilak banatu ahalko zaizkie bertaratuei, hidratatu daitezten.**
 12. **Ondorioz, pandemia egoerak iraun bitartean ezingo da jabari publikoa erabili herri bazkariak, dastaketak eta antzekoak antolatzeko.**
10. Personas con sintomatología compatible con COVID: De aparecer personas con sintomatología asociada al COVID (fiebre, tos, dificultad respiratoria, etc.) no serán admitidas al evento o, de haberlo sido, se les invitará a abandonar a fin de que vuelvan a su domicilio o a consulta médica.
 11. No se permitirá durante el evento el suministro de ningún alimento. Sólo se permitirá en situaciones excepcionales, cuando las condiciones de temperatura así lo aconseje, el suministro de agua embotellada a fin de permitir la hidratación de los asistentes.
 12. Consecuencia de lo anterior, no se autorizará la utilización del dominio público para comidas populares, degustación de productos o similares, en tanto dure la situación de pandemia.

HIRUGARRENA.- UDAL KARPA ERABILTZEKO BALDINTZAK.

1. **Eremu publikoaren erabilera arautzen duen Udal Ordenantzak izaera orokorrarekin ezarritakoaz gain, karpa erabiltzeko kontingentzia-plana aplikatuko da. Plan horretan, gehienez ere, eseritako 200 laguneko edukiera ezartzen da (ikus 1. eranskineko plano).**
2. **Ikus-entzuleak egongo diren jarduera bat egingo bada, gehieneko edukiera izango da baimendutakoa; pertsonen arteko 2,5 m-ko tarte zaindu beharko da, lurrean markak jarrita, eta agertoki eta karpan monitoreak egon**

TERCERA.- CONDICIONES DE USO DE LA CARPA MUNICIPAL.

1. Además de lo establecido con carácter general en la Ordenanza reguladora del espacio público, se aplicará el plan de contingencia establecido para el uso de la misma, que establece un aforo limitado a 200 personas sentadas en carpa semiabierta, según plano adjunto como Anexo 1.
2. Si se van a realizar actividades con público asistente, el aforo será hasta el máximo permitido, separados con marcas en el suelo a 2,5 metros, debiendo existir monitores en el escenario y en la carpa, controlando a los participantes repartidos por la misma.



beharko dira, ikus-entzuleak kontrolatzen.

- 3. Tailerrak antolatuz gero, eremua txokotan banatuko da, eta, horietako bakoitzean, gehienez baimendutako edukiera egon ahalko da. Aulkiak ere egongo dira —nahiz eta parte-hartzaileek denbora guztian eserita egon ez—, eta txoko edo pertsona taldeen artean 2,5 m-ko tartea egongo da.**
- 4. Karpara sartzeko, 2. eranskinean adierazitako lekuak erabiliko dira. Jendea sartuko da modu ordenatuan eta antolatzaileen kontrolpean, ez dadin jendepilaketarik sortu ez karpa kanpoan ez barruan, eta ez ekitaldia egin aurretik, ez bitartean, ez ostean. Era berean, segurtasun-neurriak bete beharko dira, une oro —bereziki, pertsonen arteko segurtasun-tartea zaintzea, gel hidroalkoholkoa erabiltzea (sarreran egongo da) eta maskara jantzita izatea—.**
- 5. Ekitaldia hasita badago, ezingo da eremura sartu, bidezko arrazoi batengatik ez bada.**
- 6. Karpatik irteteko, 3. eranskinean adierazitako 3 lekuak erabiliko dira. Bertaratuak modu ordenatuan aterako dira, pilaketarik sortu gabe eta segurtasun-tarteak zainduta.**
- 7. Karpa barruan larrialdietarako botikina eta su-itzalgailua egon beharko dira.**
3. Si se realizan talleres, se dividirá la zona en txokos o lugares que acojan al máximo permitido por el aforo guardándose la distancia de seguridad repartidos por todo el espacio, disponiéndose de sillas, aunque no estén necesariamente sentados en todo momento los participantes, con una distancia de 2,5 metros entre txokos o grupos de personas.
4. Las entradas se realizarán por los dos lugares señalados en el Anexo 2, de manera ordenada y controlada por los organizadores para que no se formen aglomeraciones ni dentro ni fuera de la carpa, antes, durante y después de la celebración del evento, debiendo respetarse en todo momento las medidas de seguridad; en especial, la distancia social, uso de gel hidroalcohólico, disponiéndose de dispensadores en la entrada y uso de mascarilla.
5. Una vez de comienzo el evento, no será posible acceder al recinto, salvo causa justificada.
6. Las salidas de la carpa se efectuarán por los 3 lugares señalados en el plano adjunto como Anexo 3, de forma ordenada, sin aglomeraciones y respetando las medidas de seguridad.
7. Deberá disponerse de botiquín de emergencia y extintor.



LAUGARRENA.- KONTINGENTZIA-PLANAK.

1. Ekitaldia egin aurretik, antolatzaileek kontingentzia-plana aurkeztu beharko dute Udalean, honako hauek zehaztuz:

- a. Arriskuaren analisisa: ekitaldi mota (kulturaren, kirolaren, musikaren, erlijioaren, politikaren eta abarren alorrekoa den), aurreikusitako ikus-entzule kopurua, aurreikusitako iraupena eta aipatzea egoki iritzitako beste faktore batzuk.**
- b. Ekitaldiaren pertsona fisiko arduraduna: COVID neurrien arduraduna izango den pertsona fisikoaren izena, bi abizen, NANA edo horren baliokidea den identifikazio-agiria eta helbidea. Zehapen-ondorioetarako, pertsona horrek eta antolatzaileek erantzukizun solidarioa izango dute.**

Horrez gain, Udalak kontingentzia-plan espezifikoak ezarri ahalko ditu eremu publiko jakin batzuetarako (parkeak, plazak eta abar), eta antolatzaileek plan horiek bete beharko dituzte. Oro har, posible bada, ekitaldira doazen ikus-entzuleek eserita egon beharko dute; sartzeko eta irteteko bideak bereiz seinalaztatu beharko dira; segurtasun-tartea zaindu beharko da; gel hidroalkoholikoa erabili beharko da; maskara jantzita eduki

CUARTA.- PLANES DE CONTINGENCIA

1. Cada entidad organizadora presentará con carácter previo al Ayuntamiento un Plan de Contingencia, que determinará:

- a. Análisis del riesgo: incluirá el tipo de evento (cultural, deportivo, musical, religioso, político, etc.), número estimado de asistentes, duración estimada del evento, y cuantos otros factores de riesgo se estimen pertinentes.
- b. Determinación de la persona física responsable del evento: Nombre, dos apellidos, DNI o documento de identidad equivalente y dirección de la persona física que será considerada la responsable de las medidas COVID, incluso a efectos sancionadores, de forma solidaria con la entidad organizadora.

Adicionalmente, el Ayuntamiento podrá establecer planes de contingencia específicos para determinados espacios públicos (Parques, plazas, etc.) que deberán ser respetados y su cumplimiento, asumido por los organizadores. Con carácter general, el público asistente al evento deberá permanecer sentado, si fuera posible, debiendo señalizarse los itinerarios de entrada y salida de forma separada, debiendo mantenerse la distancia de seguridad, uso de hidrogel, mascarilla en



beharko da une oro, eta legeak ezarritako beste neurri guztiak bete beharko dira.

2. Antolakuntzari lotutako neurriak:

- a. joan-etorriak kudeatzea, sartzeko eta irteteko uneetan. Horretarako, jendeari arreta emateko pertsona fisikoak izendatuko dira. Pertsona horiek behar bezala identifikatuta egongo dira, eta kontrolatuko dute sartzean eta irtetean ikus-entzuleak modu ordenatuan ari direla, jendepilaketarik sortu gabe eta segurtasun-tartea zainduta. Gutxienez, arduradun bi egongo dira.**
- b. Edukiera zaintzea jardueran zehar: aurreko atalean aipatutako pertsonak zainduko dute segurtasun-neurriak ekitaldi osoan zehar ere betetzen direla (maskarak, segurtasun-tarteak, sartzean gel hidroalkoholikoa ematea eta abar).**
- c. Garbiketa eta desinfekzioa: jardueraren hasiera eta amaieran lan horiek egiteko arduradunak izendatuko dira.**
- d. Beste betebeharrak batzuk: aurreko dispositiboan zerrendatutako gainerako betebeharrak betetzeko konpromiso espresua hartu beharko da.**

todo momento y demás medidas de seguridad legalmente establecidas.

2. Medidas de tipo organizativo:

- a. Gestión de accesos, en los momentos de entrada y salida: deberán designarse personas físicas de atención al público, debidamente identificadas, controlando que los accesos y salidas se realicen de forma ordenada, sin aglomeraciones y manteniendo la distancia de seguridad; como mínimo dos personas.
- b. Control del aforo durante la actividad: Las personas enunciadas en el apartado anterior, vigilarán que se cumplan las medidas de seguridad durante todo el evento (mascarillas, distancias de seguridad, uso de gel hidroalcohólico a la entrada, etc.).
- c. Limpieza y desinfección: se designarán personas responsables para la dichas labores al inicio y final de la actividad.
- d. Otras obligaciones: Se deberá asumir expresamente el cumplimiento del resto de obligaciones relacionadas en el dispositivo anterior.



BOSGARRENA.- LIZENTZIA- ESKABIDEAK IZAPIDETZEA.

1.- Eremu publikoa erabiltzeko Ordenantzan ezarritako gainerako baldintzak aplikatuko dira (eskabidea behar besteko aurrerapenarekin eskatzea; erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea; instalazioak bide publikoan ez ainguratzea; oinezkoen joan-etorrietarako tarteen neurria, eta abar). Horrez gain, Ordenantzaren 20. artikuluan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, bai eta jarraibide hauetan aipatutako kontingentzia-plana ere (hori gabe ez da eskabidea izapidetuko), ekitaldirako aurreikusitako data baino hamar egun natural lehenago, gutxienez, Udalak dagokion erantzuna eman ahal izateko eskabidea aurkeztzen denetik 20 eguneko epean (isiltasun-eraginaren kalterik gabe). Beraz, eskabideari honako hauek erantsi beharko zaizkio:

- a. Ekitaldiaren deskribapen zehatua.**
- b. Erakunde antolatzailearen ordezkariaren datuak, eta harremanetarako telefono-zenbakia.**
- c. Ekitaldia non egingo den — kokapen-plano eta guzti—.**
- d. Ekitaldia hasteko eta amaitzeko aurreikusitako ordutegia.**
- e. Behin-behineko instalazioak (karpak, agertokia, megafonia eta abar).**

QUINTA.- TRAMITACIÓN DE LAS SOLICITUDES DE LICENCIA.

1.- Se aplicarán el resto de condiciones establecidas en la Ordenanza de uso de espacio público (tiempo de antelación de la solicitud, necesidad de concertar un seguro de responsabilidad civil, no anclaje de las instalaciones a la vía pública, dimensiones de los itinerarios peatonales, etc.) debiéndose aportar la documentación prevista en el art. 20 de la misma así como el plan de contingencia establecido en esta instrucción, sin el cual no se dará trámite a la solicitud con una antelación mínima de treinta días naturales a la fecha prevista para la celebración del evento, a fin de que el Ayuntamiento pueda contestarla en el sentido que proceda en un plazo de 20 días desde su presentación, sin perjuicio de los efectos del silencio. En consecuencia, cada solicitud deberá venir acompañada de la siguiente documentación:

- a. Descripción detallada del evento.
- b. Datos del representante de la entidad organizadora y teléfono de contacto.
- c. Espacio de celebración, incluyendo plano de ubicación.
- d. Horario previsto de comienzo y de finalización.
- e. Instalaciones provisionales (carpas, escenario, megafonía, etc. ...).



f. Bertaratuei eragin ahal zaizkien kalteei aurre egiteko erantzukizun zibileko aseguru, Ordenantzaren 14. artikulua xedatutakoaren arabera.

g. Kontingentzia-plana, jarraibide hauetan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Egoki iritzitako txosten tekniko eta juridikoak jaso eta gero, Alkatetzak eskabideak ebatziko ditu, ebazpen arrazoitu bidez.

3.- Inolaz ere ez da ulertuko administrazio-isiltasunaren ondorioz eremu publikoa erabiltzeko baimena badagoela: joko da eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean aldeko erabaki espresua jaso ez duten eskabideak ezetsi egin direla.

SEIGARRENA.- IKUSKAPEN-ARDURA ETA -GAITASUNA.

1. Ekitaldia antolatzen duen erakunde, kolektibo, elkarte edo pertsona fisiko edo juridikoa izango da gerta daitezkeen arau-hausteen erantzule zuzena; bai lizentziarik gabeko ekitaldietan eman daitezkeenena, bai lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzetik eratorri daitezkeenena. Pertsona horiek erantzule solidarioak izango dira, ordezkariarekin edo eskabidea egin duen pertsonarekin edo ekitaldiaren arduraduna den pertsona fisikoarekin batera — hirugarren jarraibidearen 2. atalean xedatu bezalaxe—.

f. Copia del seguro que cubra la responsabilidad civil por daños a los concurrentes, según lo establecido en el artículo 14 de la Ordenanza.-

g. Plan de contingencia conforme a lo previsto en esta instrucción.

2.- Previos los informes técnicos y jurídicos que se estimen oportunos, la Alcaldía resolverá cada solicitud por resolución motivada.

3.- En ningún caso podrán entenderse adquiridas por silencio administrativo facultades relativas a la utilización del espacio público. De no recaer resolución expresa en el plazo de un mes desde la presentación de la solicitud, ésta se entenderá desestimada.

SEXTA.- RESPONSABILIDADES Y FACULTADES DE INSPECCIÓN.

1. La entidad, colectivo, asociación o persona física o jurídica organizadora del evento será directamente responsable de las infracciones que se pudieran producir, tanto por realizar actos sin licencia como sin sujetarse a las condiciones establecidas en la misma, de forma solidaria con su representante o quien haya formulado la solicitud así como con la persona física responsable del evento, conforme a lo dispuesto en la instrucción tercera, apdo. 2.



2. Udal Administrazioak edozein unetan ikuskatu ahalko ditu bai ekitaldia prestatzeko lanak, baita jarduera bera ere; eta, ikusten badu jarraibide hauetan ezarritako neurriak, indarreko legeriak aurreikusitako beste batzuk edo instalazioak desmuntatzeari dagozkionak ez direla betetzen, jarduera eten, eta osasun publikoa bermatzeko egoki iritzitako kautela-neurriak hartu ahalko ditu. Era berean, neurri horiek jasota geratu beharko dira Udaltzaingoak horri buruz jasotako aktan.

2. La Administración municipal podrá inspeccionar en todo momento tanto la preparación del evento como el desarrollo de la actividad, pudiendo suspenderla si observa que no se están cumpliendo las medidas de seguridad aquí establecidas o cualesquiera otras que vengán establecidas en la legislación vigente, así como el desmontaje de instalaciones, adoptando las medidas cautelares que considere adecuadas y proporcionadas para garantizar la salud pública, debiendo constar las mismas en el acta que levante al efecto la Policía local.

ZAZPIGARRENA.- INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA.

Jarraibide hauek BAO n eta udal webgunean argitaratuko dira. Indarrean sartuko dira azken argitalpenaren datan, eta indarrean jarraituko dute Euskal Herriko osasun-arduradunek ezarritako osasun-larrialdi egoerak irauten duen bitartean."

Basaurin, 2021eko uztailaren 15ean.- Alkatea. Asier Irigorri Basaguren.

SÉPTIMA. ENTRADA EN VIGOR Y VIGENCIA.

Esta instrucción se publicará en el BOB y en la web municipal, entrando en vigor desde la última publicación y permanecerá en vigor mientras se mantenga la situación de emergencia sanitaria declarada por las autoridades sanitarias del País Vasco."

En Basauri, a 15 de julio de 2021.- El Alcalde. Asier Irigorri Basaguren.